

DAR-DAR-DAR

Kortezubiko Matias Aranazek kontatuta 1921an

Ereinotz baten azpian sugea zegoen bere koban. Gosetzen zenean irteten zen kobatik eta jende asko hiltzen zuen.

Hau ikusirik erreinu hartako erregeak ordena jarri zuen egunero pertsona bat bere kobara eramateko, sortean botata. Baten irten zitzaien erregearen alabari. Erregeak, orduan, zabaldu zuen bere alaba sugetik askatzen zuenari, bere alaba eta erreinuaren erdia emango ziola.

Gizon bat joan zen burdinazko gantxo batzuk hartuta sugearen kobaren aurrera. Han aurkitu zuen erregearen alaba, eta berau etxera bota zuen. Koba aurrean zegoen tantai bat, eta behean hasi eta gora sartu zituen kakoak. Bera, mailu bat eskuan zuela, kakoak baino gorago igo zuen.

Kobatik urten zenean sugea, ikusi zuen gizona eta joan zen tantaiaren gainera igotzen. Ia heldu zenean gizona, honek mailuarekin jo egin zuen eta sugeak egin zuen beherantz eta sartu zizkion kaku horiek samatik. Sugea bertan hil zen. Gero sugearen zazpi buruen minak kendu eta gorde zituen, eta joan zen handik.

Geroago, beste mutil bat etorri zen sugea zegoen lekura, eta aurreko mutikoak utzitako bost buruak hartu eta erregearengana joan zen berak hil zuela esatera. Buruak erakutsi zizkion buruak erregeari. Honek sinistu egin zuen berak hil zuela sugea, eta ekarri zuen alaba beren aurrera eta alabak esan zion ez zela bera askatu zuena.

Orduan etorri zen bestea, galdetu egin zion erregeari ia buru haiek minik bazuten. Ikusirik erregeak ez zutela minik, pentsatu zuen gezurretan zebilela buruak ekarri zituenak. Erakutsi zizkion erregeari zazpi buruen minak beste etorri zen berriak. Alabari erakutsi zion hau, eta alabak esan zuen hura zela bera askatu zuena. Orduan sartu zuen preso buruak ekarri zituena, ezkondu zuen bere alabarekin minak ekarri zituena, eta eman zion erreinuaren erdia.

Joxe Miel Barandiaran

Obras Completas Tomo II

Eusko-Folklore

Editorial La Gran Enciclopedia Vasca

Bilbao, 1973